

Doktorego-tesiak sarean irakurtzeko

Euskarazko ekoizpen zientifikoan badute pisua doktorego-tesiek. Orain gutxi arte, ordea, nahiko ezezaguna izan da Euskal Herriko unibertsitateetan euskaraz aurkeztutako doktorego-tesiak zenbat eta zein izan diren. Bilduma osatzen ari dira pixkanaka Inguma datu-basea eta Tesiker proiektua.

SAIOA LABAKA

DOKTORE gradua eskuratzeko prestatzen diren berariazko dokumentuetatik, Euskal Herriko Unibertsitatean aurkezten dira gehien euskaraz. 2008ko ekaineko datuen arabera, EHUⁿ 842 irakasle doktore elebidun eta 1.889 ez-elebidun zeuden. Gaur arte unibertsitatean euskaraz 280 doktorego-tesi egin direla jakinik, irakasle euskaldun gehienek tesia gaztelaniaz egin dutela antzeman daiteke. Esan ohi da, nekezagoa gertatzen dela euskarazko tesi bat aurrera eramatea; tesien zuzendari gehienak elebakarrak direlako, epaimahaia osatzeko zailtasunak daudelako, itzulpenengatik, zabal-kundea txikiagoa delako... Euskal Herriko beste unibertsitate batzuetan euskaraz egindako tesi kopuruak ere txikiak dira, gaztelaniaz egindakoekin erkatuz gero.

Aurten, Euskal Herriko Unibertsitateak euskarazko tesiak sustatzeko laguntzen deialdi berezia egin du. Aurreko urteetan ez bezala, unibertsitateak emango dituen beka Eusko Jaurlaritzak edo Espainiako Hezkuntza Ministerioak ematen dituztenen parekoak izango dira. Bi helburu nagusi lortu nahi dituzte honekin guztia-ekin; doktore elebidun gehiengo sortzea eta euskarazko corpus akademiko eta linguistikoa indartzea. EHUk euskarazko doktorego-tesiak bultzatzeko beste ekimen bat ere badu; Euskaltzaindiarekin batera bi urtean behin antolatzen duen Koldo Mitxelena Saria. Jakin-



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Gaztelerezko edo frantseseko tesiekin alderatuz euskarazkoak gutxi dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoan bi dira euskaraz eginak.

tza arlo bakoitzeko euskarazko tesirik onenak saritzen dituzte.

Euskarazko doktorego-tesien katalogoa

Udako Euskal Unibertsitateak kudeatzen duen Euskal Komunitate Zientifiko-Intelektualaren Datu-basea da Inguma (www.inguma.org). Bertan, azken berrogei urteetan unibertsitateko zientzia eta jakintza alor bakoitzean euskaraz ahoz zein idatziz ekoitzi denari buruzko oinarriko informazioa eskaintzen da. Euskal Herriko unibertsitateetan euskaraz aurkeztutako tesien erreferentziak biltzen dituen informazio iturri publiko bakarra da berau. 1976 eta 2009 bitartean sortutako 325 eus-

karazko doktorego-tesi daude katalogatuta. Egun, esku artean beste zazpi dituzte katalogatzeko bidean. Alboko orriko taulan ikus daiteke Euskal Herriko unibertsitateetan euskaraz egindako tesien banaketa.

Ingumaren datu-basean topa daitekeen lehen doktorego-tesia 1976. urtekoa da, Rikardo Arrue kardiologoak EHUⁿ aurkeztutakoa. Inguma datu-basearen arabera, 2007an defendatu ziren euskarazko doktorego-tesi gehien, hogeita sei hain zuzen ere. 1992tik urtean aurkeztu diren euskarazko doktorego-tesi kopurua 11-21 bitartekoa izan da.

Inguma datu-baseko arduradun Uxune Martinezek azaldu digunez, euskarazko tesien katalogazioa nahi-

ko lan konplexua izan da. Izan ere, hainbat informazio iturritara jo behar izan dute datuak eskuratzeko, erkatzeko eta egiaztatzeko: Azkue Bibliotekara, HABEko Liburutegira, unibertsitateetako liburutegietara, errektoreordetzetara, hainbat fakultatetako sailetara eta egileengana ere bai. Erraza ez bada ere, oso lan polita dela jakinarazi digu Martinezek, biltzen dituzten datuak benetan interesgarriak direlako. Esaterako, azken hilabete hauetan 80ko hamarkadan defendatutako bost doktorego-tesiren berri izan dute, egile batek emandako argibideak jarraituz.

Dokumentu mota hauek euskarazko produkzioa sustatzen eta komunitate zientifikoa trinkotzen izan dezaketen garrantzia aintzat harturik, UEU euskarazko doktorego-tesiak euskarri elektronikoa argitaratzen hasi zen 2005ean, eta une honetan Inguman bederatzi doktorego-tesiren argitalpen digitala kontsulta daiteke. Proba moduan abiatu zuten doktorego-tesiak sareatzea. Bestalde, produkzio guztia-zen azterketa estatistikoa egin zuten 2006 eta 2007 bitartean. Kontuan hartuz datu-basean 36.000 erreferentziatik gora daudela eta azken urteotan datu-baseak 30.000 bisitaz gora izan dituela, datu adierazgarria da gehien kontsultatutako dokumentuen artean digitalizatutako bi tesi aurkitzea: Josu Amezagaren *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak* eta Bittor Hidalgoen *Hitzzen ordena euskaraz*.

325 doktorego-tesi euskaraz Inguman (1976-2009)

Euskal Herriko Unibertsitatea	280
Deustuko Unibertsitatea.....	25
Nafarroako Unibertsitatea	14
Mondragon Unibertsitatea	3
Bordeleko Unibertsitatea	2
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	2
Paueko Unibertsitatea	2

Oharra: askotan ez datoz bat unibertsitateek zuzenean emandako kopuruak eta Ingumak emandakoak. Ingumak doktorego-tesi gehiago zenbatu ohi ditu.

Doktorego-tesien digitalizazioa

Esan bezala, Inguman kontsulta daitezkeen bederatzi tesi horiek sareatzea proba gisa abiatu zen, eta gaur egun hastapeneko lan hori garatzea eta zabaltzea Tesiker egitasmoaren esku geratu da. Euskaraz egindako dokumentazio akademiko-unibertsitarioaren argitalpen

Inguman gehien kontsultatutako artean daude Josu Amezaga eta Bittor Hidalgoen tesiak

digitala eta kontsulta publikoa ahalbidetzeko proiektua da berau. 2007an jarri zen abian. Tesikerren doktorego-tesiekin egiten dute lan, bereziki. Euskaraz egindako produkzioa indartzea, komunitate zientifikoa euskalduna trinkotzea eta sus-

tatzea, Internet euskarazko eduki zientifikoa unibertsitarioekin hornitzea, eta ikerkuntza unibertsitarioen emaitzak ezaugaratzea dira egitasmoaren helburu nagusiak. Tesiker ez dago Interneten oraindik.

Euskarazko doktorego-tesien digitalizazioak, egileen curriculumak sustatzeaz gain, aukera ematen die euren lanen erreferentzialtasuna eta agerikotasuna handitzeko, besteak beste. Tesiker egitasmoaren arduradunak, Iosu Ziordiak, ekime-naren zeregin nagusiak zein diren azaldu digu. Batetik, doktorego-tesien kudeaketa dokumentala egiten ari dira. Inguma

datu-basean katalogatutako tesietatik abiatuz, datuak esportatu eta datu-base propioa eraikitzen ari dira. Bestetik, egileekiko harremana eta jabego eskubideen kudeaketa lana ere egiten dute. Doktorego-tesia euskaraz egin duten egileei egitasmoaren berri eman eta ekime-nan parte hartzera gonbidatzen dituzte. Era berean, egileak dokumentuaren gainean duen jabego eskubide intelektuala kudeatu egiten dute. Horretarako, doktorego-tesi bakoitzaren edizio digitala (ISBN zenbakia), web bidezko kontsulta eta ikerkuntza ahalbidetzeko baimen agiria prestatzen dute. Azkenik, doktorego-tesien argitalpen digitalaz ere arduratzen dira. Tesikerrek egileen baimenarekin doktorego-tesia eskuratu eta argitalpen digitala ekoizten du. Orain arte, 119 tesi tramitatu dituzte 2007-2008 urte bitartean, eta aurten berrogeitik gora eskaera jaso dituzte. ■

